

Harrobia Ikastolak jakinarazten du segurtasun-arazo bat egon dela webgunean eta Moodle plataformaren erabilgarritasunari eragin diona. Gure konpromisoa gardentasuna denez, honako honen berri eman nahi dizuegu:

- **Zer gertatu da?** 2026ko irailaren 18an, kanpoko eraso tekniko bat detektatu genuen gure VPS zerbitzarian. Erasotzaileak zerbitzaria erabili zuen kanpoko trafikoa anomaloa sortzeko, eta horrek sistemak blokeatzea eragin zuen.
- **Nori eta zertan eragin dio?** Intzidenteak gure webguneei (harrobia.net eta lhduala.harrobia.net) eta **Moodle** plataformari eragin die.
 - Webguneetan ez dago erabiltzaileen datu pertsonalik.
 - Moodle plataformaren kasuan, erregistratutako izen-abizenak eta erabiltzaile-kontuak (posta elektronikoko pertsonalak). **Ez da banku-daturik edo bestelako datu sentikorrik erakutsi**, gure sistemek ez baitituzte horrelakoak gordetzen.
- **Zer neurri hartu ditugu?** Erasoa detektatu bezain laster, zerbitzaria isolatu eta sistema eragile osoa berrinstalatu dugu oinarri garbi eta seguru batetik. Webguneak segurtasun-kopia seguruetatik leheneratu ditugu, kode maltzurrik ez dagoela ziurtatzeko eskaneatu ondoren. Gainera, sarbide-kredentzial guztiak aldatu eta segurtasun-neurri teknikoak gogortu ditugu (SSH gako kriptografikoak eta suebaki indartsuagoak jarritz). Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak (DBEA) ere eman zaio intzidentearen berri.
- **Gomendioak:** Gaur gaurkoz ez dugu datu horien erabilera maltzurrik antzeman, baina badaezpada, gure ikasleei gomendatzen dizuegu erne egotea jatorri susmagarria duten edo informazio pertsonala eskatzen dizuten posta elektronikoen aurrean (Phishing).

Barkatu eragindako eragozpenak. Zuen segurtasuna eta datuen babesa dira gure lehentasun nagusia. Edozein zalantza izanez gero, jar zaitezte gurekin harremanetan ohiko bideetatik.